

BESTELAKO XEDAPENAK

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA

4913

EBAZPENA, 2024ko urriaren 8koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «Donostialdeko metroaren eraikuntzaren 2. Proiektu Aldatua. Tarte: Altza-Galtzaraborda» proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

2021eko apirilaren 12an, Garraio Azpiegituren zuzendariaren ebazpenaren bidez, «Donostialdeko metroaren eraikuntza-proiektua. Altza-Galtzaraborda tarte» proiektua onartu zen.

«Donostialdeko metroaren eraikuntza-proiektua. Altza-Galtzaraborda tarte» proiektuaren xedea da, eraikuntza-mailan, Donostialdeko metroaren Altza-Galtzaraborda tarte ezartzeko beharrezkoa den obra zibila zehaztea. Tarte trazatu berrikoa eta trenbide bikoitzekoa izango da, eta egiten ari den Alzako geltoki berria eta Galtzarabordako egungo geltokia lotuko ditu, Errenteriako etorkizuneko lurperatzearekin koordinatuta.

2024ko irailaren 11ko Ebazpenaren bidez, «Donostialdeko metroaren eraikuntzaren 2. Proiektu Aldatua. Tarte: Altza-Galtzaraborda» onetsi zen. Ebazpena 2024ko urriaren 1ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (191. zk.).

Oinarrizko proiektuaren preskripzioekin lotuta obran gertatzen diren aldaketak, 2. proiektu aldatua idaztea justifikatzen dutenak, hauek dira:

- Galtzarabordako geltokia berritzeko proiektuarekin integratzea.
- Loreteko larrialdiko aireztapena aldatzea.
- Molinaoko errekaetan hormak aldatzea.
- Galtzarabordako trenbide-konexioa aldatzea eta definitzea, etorkizunean Errenteriako saihebidetza egiteko.
- Pasaiako geltokiko larrialdi-irteera aldatzea.
- Neurketa eguneratzea.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzeen eranskinean ageri dira lurzatien zerrenda eta planoak.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituraren arloko jarduerak betearazteko beharrezkoak diren desjabetze espedienteak izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera. Urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuak indarrean jarraitzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren Lehen Xedapen Iragankorrean ezarritakoaren arabera.

Abenduaren 19ko 26/2022 Legeak aldatutako Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen proiektuak, horien tartek edo tren azpiegituraren beste elementu batzuk

2024ko urriaren 25a, ostirala

eraikitzeko proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturak aldatzeko proiektuak onartzen direnean, onespenez berekin ekarriko du onura publikoaren edo gizarte-interesaren deklarazioa, lursail horiek okupatu beharra izatea eta okupazio hori premiazko zatik deklaratzeko, ukitutako eta identifikatutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berarekin dakarren arren proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendurrean jarri behar dela ezartzen dute, nahi duenak alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan dituzan, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, hau

EBAZTEN DUT:

Jendurrean jartzea «Donostialdeko metroaren eraikuntzaren 2. Proiektu Aldatua. Tarteak: Altza-Galtzaraborda» proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezkeen, okerrak baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea 1 – Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Donostiako udaletxeko iragarki-taulan ere erakutsiko da jendurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 8a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2024ko urriaren 25a, ostirala

ERANSKINA

Finka zk.	Katastroko erref. eta udalerría	Jabea	Eragin mota (m ²)			Izaera
			Erabateko Desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako Okupazioa	
001-1	8796225 Donostia / San Sebastián	Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila	142	0	529	Baratzea
001-1 CULT 01	Donostia / San Sebastián	Jose María Gutiérrez EliceGUI	0	0	120	Baratzea
001-1 CULT 02	Donostia / San Sebastián	Manuel Martín Sánchez	0	0	90	Baratzea
001-2	Donostia / San Sebastián	Donostiako Udala	0	0	37	Berdegunea Darieta bideko kalean